

Arau-hauste horren erantzulezat baimenaren titular den Zabaus 2008 SL jo da.

Hori guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legean aurreikusitako eskumenak baliaturik –Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko ekainaren 20ko erabakiaren bidez beraren gain utzitako aginpidea dela medio–, Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariak hauxe erabaki du:

Zabaus 2008 SL baltzuarri –Barrenkale kalea 20 (behea, 1)– 600,00 euroko zigorra jartzea.

Hilabeteko epean ordaindu beharko da isun hori. Hala egin ezean, behartze bidera joko da, kobrantza gauzatzeko.

Ezin izan zaionez horren berri Barrenkale kaleko 20an (behea, 1) dagoen Kebab tabernaren titular den Zabaus 2008 SL baltzuarri eman, posta zerbitzuak jakinarazpena atzera itzuli baitu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan adierazitako eran argitaratzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 8an.– Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkaria, ALBA CAÑADAS MORA.

### VITORIA-GASTEIZ

GIZARTEGINTZA

4286

#### Huts materialaren zuzenketa

2010eko ekainaren 21eko ALHAOn (55 zk.) seme-alaben jaiotza edo adopzioagatik laguntzak –“bebe laguntza”– emateko deialdi publikoa eta hura arautuko duten oinarriak argitaratu ziren.

Akats material bat atzeman da deialdia arautuko duten oinarrietan, eskabideak aurkezteko epeari dagokionean, Tokiko Gobernu Batzarrak hutsa zuzendu du 2010eko ekainaren 4an egindako ohiko bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 105.2. artikuluan ezartzen duenari jarraituz.

Honela dio: “2009ko maiatzaren 1.etik abuztuaren 31ra bitarteko jaiotza eta adopzioen kasuan, betebeharrak eta baldintza orokorrak betez gero, laguntza 2010eko maiatzaren 15etik uztailaren 14ra arte eskatu ahalko da, Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetan”.

Eta honela behar du: “2009ko maiatzaren 1.etik abuztuaren 31ra bitarteko jaiotza eta adopzioen kasuan, betebeharrak eta baldintza orokorrak betez gero, laguntza 2010eko maiatzaren 17tik uztailaren 16ra arte eskatu ahalko da, Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetan”.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 10ean.– Administrazio Zerbitzuen burua, ROSANA URTARAN URTARAN.

### VITORIA-GASTEIZ

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

4307

#### Vitoria-Gasteizen Bidaiarentzako Hiri Garraio Kolektiboaren Zerbitzua emateko Araudiaren aldakuntzaren behin betiko onespena.

2010eko otsailaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran eman zion hasierako onespena Udaltzaren Bidaiarentzako Hiri Garraio Kolektiboaren Zerbitzua emateko Araudiaren aldakuntzari. Ez denez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu horren inguruan, erabaki hori behin betikotzat jo da 2010eko apirilaren 20an, eta, horrenbestez,

De la mencionada infracción se considera responsable a Zabaus 2008 SL., titular de la licencia.

Considerando lo anteriormente expuesto, la Concejala-Delegada del Área de Medio Ambiente, en uso de las atribuciones conferidas por la Ley 57/2003, de medidas de modernización del Gobierno Local, y de conformidad con la delegación otorgada por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 20 de junio de 2007, resuelve:

Sancionar a Zabaus 2008 SL, en Calle Barrenkale 20 bajo 1, con sanción económica de 600,00 euros.

La presente sanción deberá hacerse efectiva dentro del plazo de un mes, apercibiéndole de que en caso contrario se procederá a su cobro mediante vía de apremio.

Que al no haber podido ser notificada dicha comunicación a Zabaus 2008 SL, titular de Kebab, en Calle Barrenkale 20 bajo 1, al haber sido devuelta por el servicio de correos, se proceda a su publicación en la forma prevista en el Art. 59.5 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Bases del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2010.– La Concejala-Delegada del Área de Medio Ambiente, ALBA CAÑADAS MORA.

### VITORIA-GASTEIZ

INTERVENCIÓN SOCIAL

4286

#### Corrección de error material

En el BOTHA nº 55 de fecha 21 de junio de 2010 se publicaron convocatoria y bases reguladoras de la concesión de ayudas por nacimiento o adopción Bebe Laguntza.

Habiéndose advertido error material en dichas condiciones reguladoras en lo referente al periodo señalado para la presentación de solicitudes, por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en sesión ordinaria celebrada en fecha 4 de junio de 2010 se ha procedido a su rectificación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el siguiente sentido:

Donde dice: “los nacimientos y adopciones producidas entre el 1 de mayo y el 31 de agosto de 2009 que cumplan los requisitos y condiciones generales establecidas podrán solicitar la ayuda desde el 15 de mayo hasta el 14 de julio de 2010 en las Oficinas de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz”

Debe decir: “los nacimientos y adopciones producidas entre el 1 de mayo y el 31 de agosto de 2009 que cumplan los requisitos y condiciones generales establecidas podrán solicitar la ayuda desde el 17 de mayo hasta el 16 de julio de 2010 en las Oficinas de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz”

Vitoria-Gasteiz, 10 de junio de 2010.– La Jefa de Servicios Administrativos, ROSANA URTARAN URTARAN.

### VITORIA-GASTEIZ

SECRETARÍA GENERAL DEL PLENO

4307

#### Aprobación definitiva de la modificación del Reglamento para la prestación del servicio de Transporte Urbano Colectivo de Viajeras y Viajeros de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

Acordada en sesión ordinaria del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 26 de febrero de 2010 la aprobación inicial de la modificación del Reglamento para la prestación del servicio de Transporte Urbano Colectivo de Viajeras y Viajeros de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, que se entiende definitivamente aprobado el 20 abril

indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko maiatzaren 19an.— Alkatea, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

### Eranskina

#### Gasteizko udalerrian bidaiarentzako hiri garraio kolektiboaren zerbitzua emateko araudia

##### Lehen titulua Xedapen orokorrak

###### 1. artikulua.

Gasteizko Udalak hirian hiri garraio zerbitzua emateko eginkizuna bere gain hartu du, horretarako monopolio erregimena baliatuta.

Udalak berak kudeatzen du zerbitzua, kapital sozial osoa udalarena duen merkataritza sozietate gisa, eta ondorio horretarako Gasteizko hiri garraioak SA (TUVISA) udal enpresa eratu du.

###### 2. artikulua

Garraio zerbitzu publikoa da, beraz, nahi duen orok balia dezake, betiere araudi honek zein gai horretan indarrean den legeriak erabiltzaileentzat xedatzen dituen baldintza eta betebeharrak betez gero.

###### 3. artikulua

Araudi honen xede da zerbitzua nahiz erabiltzaileen eta enpresaren arteko harremanak arautzea, hots, erabiltzaileen egoera, eskubide eta betebeharrak.

###### 4. artikulua

TUVISAKo erabiltzaileei zein langileei aplikatuko zaie honako araudia.

##### Bigarren titulua Zerbitzuaren antolaketa

###### I. kapitulua

###### 1. atala. Ibilbideak

###### 5. artikulua

TUVISAK ematen duen hiri garraio zerbitzua enpresaren Administrazio Kontseiluak onetsitako proiektu teknikoetara egokituko ditu ibilbideak.

###### 6. artikulua

Linea sarea osatzeko kontuan hartuko dira eskatzaileen eskaera, eskura dauden baliabide tekniko eta ekonomikoak eta Udalak ezartzen dituen irizpide sozialak, aurretik egindako dagozkion azterlan teknikoekin bat.

Edozein aldaketa onetsi ondoren, ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio tokiko komunikabideetan eta enpresaren ibilgailuetan, behar besteko denboraz, pertsona orok horren berri izan dezan.

###### 7. artikulua

Sarearen egitura aldatzeari buruz herritarrek zein elkarteek egindako iradokizunak TUVISAKo bulegoetan edo Udalaren erregistroan —hortik TUVISARA bidaliko dituzte— aurkeztu beharko dira, eta enpresak nahiz Udalak dagozkion txosten teknikoak egin ondoren, kasua bada, onetsi egingo ditu Administrazio Kontseiluak.

###### 8. artikulua

Autobusa gelditzen den toki guztietan nahiko informazio egongo da erabiltzaileentzat, hala nola, toki horretan gelditzen diren linea guztien ibilbidea, baita zerbitzuaren hasiera eta bukaera ordua ere.

###### 2. atala. Geltokiak

###### 9. artikulua

Enpresaren zuzendaritzak zehaztuko du linea erregularrek eduki behar duten geltoki kopurua eta horien kokalekua, TUVISAKo Administrazio Kontseiluaren politika eta ildoekin bat.

Geltoki horiek azken geltoki edo ohiz kanpokoak izan daitezke.

de 2010 al no haberse presentado ninguna reclamación ni sugerencia, procede su publicación en el BOTHA, conforme establece el art. 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local 7/85, como requisito para su entrada en vigor.

Vitoria-Gasteiz, 19 de mayo de 2010.— El Alcalde, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

### Anexo

#### Reglamento para la prestación del servicio de transporte urbano colectivo de viajeras y viajeros de la ciudad de Vitoria-Gasteiz

##### Título primero Disposiciones generales

###### Artículo 1.

El Excelentísimo Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz asume, en régimen de monopolio, la prestación del servicio de transporte urbano de la ciudad.

El servicio se gestiona directamente por el Ayuntamiento en forma de sociedad mercantil, con capital social íntegramente municipal, a cuyo efecto tiene constituida la entidad empresa municipal de Transportes Urbanos de Vitoria, SA (TUVISA).

###### Artículo 2

El servicio urbano es de carácter público, por lo que tendrán derecho a su utilización cuantas personas lo deseen sin otra limitación que las condiciones y obligaciones que para el usuario señale el presente Reglamento y la legislación vigente en la materia.

###### Artículo 3

El presente reglamento tiene por objeto regular la prestación del servicio y las relaciones entre las personas usuarias y la empresa; situación, derechos y deberes de aquéllos.

###### Artículo 4

Este Reglamento será de aplicación a los usuarios y usuarias y al personal de TUVISA.

##### Título segundo Organización del servicio

###### Capítulo I

###### Sección 1ª. Trazado

###### Artículo 5

El servicio de transporte urbano prestado por TUVISA ajustará su trazado, en cada momento, a los proyectos técnicos previamente aprobados por el Consejo de Administración de TUVISA.

###### Artículo 6

La red de líneas responderá en todo momento, previos los estudios técnicos correspondientes, a la demanda de los usuarios, recursos técnicos y económicos disponibles y criterios sociales que el Ayuntamiento determine.

Una vez aprobada cualquier modificación, se dará a la misma la máxima difusión posible por medio de la prensa local y vehículos de la empresa, con la antelación suficiente y para general conocimiento.

###### Artículo 7

Las sugerencias de la ciudadanía o asociaciones sobre cambio en la estructura de la red, se presentarán en las Oficinas de TUVISA o en el Registro del Ayuntamiento que las remitirá a aquélla y, previos los informes técnicos oportunos de la empresa y del Ayuntamiento, se aprobarán, en su caso, por el Consejo de Administración.

###### Artículo 8

En todos los puntos de parada deberá existir información suficiente para la persona usuaria que incluirá, en todo caso, esquema del recorrido de las líneas que incidan en dicho punto, así como horas de comienzo y terminación del servicio.

###### Sección 2ª. Paradas

###### Artículo 9

Las líneas regulares tendrán el número y situación de parada en el recorrido que se determine por la dirección de la empresa, de acuerdo con la política y directrices del Consejo de Administración de TUVISA. Estas paradas se clasifican en terminal o parada discrecional.

## 10. artikulua

Linearen azken geltokia ordutegia erregularizatzeko derrigorrez egin beharrekoa da.

## 11. artikulua

Erabiltzailearen eskariak egin behar den geldialdia ohiz kanpokoa da; horretarako ibilgailutik jaitsi nahi badu txirrina jo beharko du eta igo nahi badu, geltokian dagoen erabiltzaileak eskua buruaren gainetik altxatzen duela ikusi beharko du gidari-kobratzaileak.

## 12. artikulua

Behin autobusa gelditu dela, erdiko edo atzeko atetik aterako dira erabiltzaileak eta igo nahi dutenak, berriz, aurrekotik sartuko; gidari-kobratzaileak inolaz ere ezin izango dio inori aurreko atetik jaisten utzi.

## 13. artikulua

Geltokiak seinalizatu beharko dira lineaz linea, toki berean badaude ere.

## 14. artikulua

Geltokietako edozein aldaketa ohiko geltokian jakinarazi beharko da, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

## 15. artikulua

Berriaz debekatua dago autobusa geltokitik kanpo gelditzea, ezinbestean ez bada.

## 3. atala. Tarifak

## 16. artikulua

Eskudun erakundeek onetsitako tarifak baliatuko ditu TUVISAk, eta horien gaineko edozein aldaketa momenturo indarrean dagoen lege-diarekin bat egin beharko da.

## 17. artikulua

Behin dagokion tarifen aldaketa onetsi ondoren, jendeari eman beharko zaio horren berri, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

## 18. artikulua

Ofizialki ezarritako tarifek baino ez dute balio izango TUVISA-arentzat, eta horiek ordaindu beharko dituzte erabiltzaileak, tarifa horiek onesteko xedapenean edo araudi honetan adierazten diren salbuespen kasuak aintzat harturik.

## 19. artikulua

Zerbitzu berezietako tarifak —hilerria edo Andre Maria Zuriaren jaietako gauekoak— 29. artikuluan xedatutakoarekin bat arautuko dira.

## 4. atala. Txartelak

## 20. artikulua

Egiten den bidaia motari dagokion txartela ordainduko da, momentuan indarrean dagoen araudiarekin bat.

## 21. artikulua

Bidaiatzeko titulua, hondatu gabe eta kontrolatua izateko moduan, gorde behar dute bidaiariek, autobusean dauden bitartean, eta enpresako langileek eskatzen diotenean erakutsi.

## 22. artikulua

Ikuskatzaileak edo behar bezala baimendutako langileak bidaiatzeko titulua eskatu arren erakusten ez duen erabiltzaileari bere datu pertsonalak egiaztatzeko eskatuko zaio eta dagokion arau-hauste orria beteko da Udalaren aurrean izapidetzeko, zeinek 90,15 euroko zigorra jartzea eragin baitezake; gainera, ibilgailuak egiten duen hurrengo geldialdian jaitsi beharko du autobusetik. Arau-hausleak bere datu pertsonalak enpresaren ikuskatzaileari eta/edo baimendutako agenteari emateko eragozpenak jartzen edo emateari uko egiten badiu, agintearen agenteen laguntza eskatu ahalko da eta hori salaketan adierazi; nolana ere, erabiltzaileak egoki jotzen duen erreklamazioa aurkeztu ahalko du.

## 5. atala. Ordutegia

## 23. artikulua

Zuzendaritzaren eskumena izango da lineen ordutegi eta maiztasuna ezartzea, eta horietara egokituko da zerbitzua, enpresaren proiektu teknikoarekin bat, ezinbestean ez bada.

## Artículo 10

Serán consideradas terminales de línea, aquellas paradas obligatorias que sirvan para la regularización de horarios.

## Artículo 11

Serán de carácter discrecional, aquellas paradas en que el vehículo tan sólo se estacionará cuando el usuario lo haya solicitado, pulsando el timbre, para bajarse del vehículo, o cuando el conductor-perceptor observe que las personas situadas en los puntos de parada solicitan subir al vehículo, alzando la mano por encima de la cabeza.

## Artículo 12

Una vez parado el autobús, los usuarios y usuarias descenderán por la puerta central o la trasera y los que han de tomar el bus lo harán por la delantera, nunca y bajo ningún pretexto, el conductor-perceptor deberá dejar bajar por la puerta delantera.

## Artículo 13

Las paradas deberán señalizarse, línea por línea, aún cuando estuviesen ubicadas en el mismo lugar.

## Artículo 14

Cualquier alteración en la ubicación de una parada, habrá de ser notificada al público en la parada de costumbre y tal como se especifica en el art. 6.

## Artículo 15

Se prohíbe expresamente el estacionamiento del autobús fuera de parada, salvo por causa de fuerza mayor.

## Sección 3ª. Tarifas

## Artículo 16

Las tarifas que regirán en TUVISA serán las aprobadas por los organismos competentes; cualquier modificación de las mismas, habrá de realizarse de acuerdo con la legislación vigente en cada momento.

## Artículo 17

Una vez aprobadas en forma procedente la modificación de tarifas, habrá de anunciarse al público en la forma determinada en el art.6.

## Artículo 18

No serán válidas otras tarifas para TUVISA, que las oficialmente establecidas, cuyo importe, habrá de ser abonado por los usuarios sin otras excepciones que las expresamente consignadas en la propia disposición que las apruebe, o en el presente Reglamento.

## Artículo 19

Las tarifas de los servicios especiales al "Cementerio" o "Nocturnos Fiestas Virgen Blanca", se regirán por la normativa contenida en el Art. 29.

## Sección 4ª. Billetes

## Artículo 20

El pago del viaje se efectuará de acuerdo con la normativa que rija en cada momento para la modalidad del viaje que se utilice.

## Artículo 21

Las personas viajeras están obligadas a conservar el título válido de viaje sin deterioro y en condiciones de control, durante su permanencia en el vehículo, así como exhibirlo cuando sea requerido para ello por el personal operario de la empresa.

## Artículo 22

El usuario que a solicitud del Inspector/a o personal debidamente autorizado, no exhiba el título válido del viaje, será requerido para que acredite sus datos personales, emitiéndose el correspondiente boletín de infracción, que será tramitado ante el Ayuntamiento y del que podrá derivarse una sanción de 90,15 euros estando obligado a descender del vehículo en la primera parada que se realice. Si la persona infractora se resistiese o se negase a facilitar sus datos al personal Inspector y/o agente autorizado de la empresa, se podrá recabar el auxilio de los agentes de la autoridad, haciéndolo así constar en la denuncia; todo ello sin perjuicio de que el usuario formule la reclamación que estime procedente.

## Sección 5ª. Horario

## Artículo 23

La dirección queda facultada para determinar el horario y frecuencia de las distintas líneas, a los que se ajustará el servicio que se presta, salvo casos de fuerza mayor, y siempre de acuerdo con el proyecto técnico de la empresa.

## 24. artikulua

Lineen ordutegi eta maiztasuna horiek beraiek seinalatzen dituzten xafletan agertu beharko dira.

## 25. artikulua

Zuzendaritzak erabakitako edozein aldaketaren berri eman beharko zaie erabiltzaileei, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

## 26. artikulua

Zerbitzuan ezinbestean ematen diren etenaldiak, ahalik eta azkarren konpondu beharko dira eta horretarako ibilbide alternatiboak jatorrizkoen ahalik eta antzekoenak izan daitezten saiatuko, ahal dela: etenaldia eragin duen arrazoia desagertutakoan jatorrizko ibilaldira itzuli beharko da.

## 27. artikulua

Matxura edo bestelako gertakaria dela eta, zerbitzua eteten badu ibilgailuak, erabiltzaileak lehengo ibilgailuan zuten bidaiatzeko titulu berarekin igoko dira hurrengo autobusera.

## 28. artikulua

Ohiz kanpoko geltokietan, bidaiariak igo edo jaisteko behar den besteko denboraz baino ez da geldituko autobusa.

## II. kapitulua

## Zerbitzu ez erregularrak

## 29. artikulua

Erregularrak ez diren zerbitzuak bereziak edo apartekoak izan ahaliko dira.

Azokak, jaiak eta abar edo hainbat sektoretan jende asko pilotzen denean ematen dira zerbitzu bereziak, zerbitzu erregularrak gora-behera. Nahi duen orok erabil ditzake zerbitzu publiko horiek, arauzko baldintzak betetzen baditu.

Aparteko zerbitzuak hainbatetan edo aldiaren behin erakunde, zentro edo sektore zehatzei ematen zaizkienak dira, eta bakarrik erabili ahaliko dituzte erakunde horiek xedatzen dituzten pertsonak.

## 30. artikulua

Erakunde eskudunak onetsi beharko ditu zerbitzu berezien tarifak, bidaiari zenbatekoa xedatu eta jende orori jakinarazi, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

## 31. artikulua

Aparteko zerbitzuen zenbatekoa euro/kilometrokoa kontuan hartuta edo bidaiari kobratuko da, zeina enpresaren zuzendaritzak zehaztuko baitu, zerbitzuaren benetako kostua kontuan hartuta.

## 32. artikulua

Aldian behin ematen diren zerbitzu berezien etetea jakinarazi beharko da, ezartzea jakinarazten den bezala, eta araudi honek zein harekin bat datozenetan ezarritakoa hartuko da aintzat baldintza, eskubide eta betebeharrak zehazterakoan.

## 33. artikulua

Aparteko zerbitzuen araubidea horiek ezartzeko erabakian jasoko da, eta subsidiarioki, araudi honetan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

## 34. artikulua

Enpresaren zuzendaritzak zehaztuko ditu ibilbidea, geltokiak, maiztasunak eta abar, bai eta ezartzen direnean iragarri ere.

## III. kapitulua

## Ibilgailuak

## 1. atala. - Ibilgailuak oro har

## 35. artikulua

Osasun, garbitasun zein zaintze baldintza tekniko onean dauden ibilgailuek baino ezin izango dute zerbitzua eman.

## 36. artikulua

Garbitasuna, kanpoko zein barrukoa, arretatsua izan beharko da, hots, erabiltzailearekiko begirunetsua.

## 37. artikulua

Ustiatze zuzenari eta bidaiari zein oinezkoen segurtasunari eragin diezaiaketen ibilgailuaren zatien zainketa zehatzari dagozkion zaintza lan tekniko normalak burutu beharko dira autobusetan.

## Artículo 24

El horario y frecuencia de las líneas, deberá figurar en las placas de señalización de todas y cada una de las mismas.

## Artículo 25

Cualquier alteración que la dirección determine, será anunciada al público en los medios señalados en el art.6.

## Artículo 26

Las interrupciones en el servicio por fuerza mayor, habrán de ser subsanadas en el menor tiempo posible, procurando que los recorridos alternativos sean lo más parecidos, dentro de lo posible, a los itinerarios originales, a los que se ha de volver tan pronto como desaparezca el motivo excepcional que los originó.

## Artículo 27

Si un vehículo interrumpe su servicio por avería mecánica o cualquier otra incidencia, los usuarios subirán al siguiente autobús con el mismo título de viaje del vehículo anterior.

## Artículo 28

El estacionamiento en las paradas discrecionales, será el estrictamente necesario para permitir la subida y bajada de pasajeros.

## Capítulo II

## Servicios no regulares

## Artículo 29

Los servicios que no tengan carácter de regulares podrán ser de dos clases: especiales y extraordinarios.

Los especiales se realizan con independencia de los regulares con motivo de ferias, fiestas, etc. o con ocasión de aglomeraciones de público, en determinados sectores. Estos servicios de carácter público, tienen derecho a su utilización cuantos usuarios lo deseen y cumplan las condiciones reglamentarias.

Los servicios extraordinarios serán aquellos que en determinadas ocasiones, o de forma periódica, puedan establecerse en atención a organismos, centros o sectores concretos; y a su utilización, sólo tendrán derecho las personas que determinen los organismos en favor de quienes se establezcan.

## Artículo 30

Las tarifas de los servicios especiales habrán de ser aprobadas por el organismo competente, fijándose su cuantía por viaje y anunciándose al público en la forma prevista en el art. 6.

## Artículo 31

El importe de los servicios extraordinarios se fijará bien en euros/kilómetro, o mediante cobro por viaje, cuyo importe se determinará por la dirección de la empresa atendiendo al coste real del servicio.

## Artículo 32

La supresión de los servicios especiales periódicos habrá de ser anunciada con idéntica publicidad a su establecimiento y se regirá en sus condiciones, derechos y obligaciones, por los preceptos de este Reglamento y concordantes.

## Artículo 33

Los servicios extraordinarios se regularán en un todo por el propio acuerdo de su establecimiento y, subsidiariamente, por este Reglamento.

## Artículo 34

El recorrido, paradas, frecuencias, etc., serán determinados por la dirección de la empresa y anunciados con su establecimiento.

## Capítulo III

## De los vehículos

## Sección 1ª. - De los vehículos en general

## Artículo 35

Los vehículos tan sólo podrán prestar servicio en las debidas condiciones de sanidad, limpieza y estado de conservación técnica.

## Artículo 36

La limpieza, tanto exterior como interior, habrá de ser esmerada, entendiéndose por aquella que exige el respeto al usuario.

## Artículo 37

El estado de conservación técnica habrá de ser el normal de una correcta explotación y escrupuloso en aquellos órganos del vehículo que puedan afectar a la seguridad de los viajeros y transeúntes.

## 38. artikulua

Oro har, zuzendaritzak zerbitzuaren onerako diren neurri guztiak hartu beharko ditu, ibilgailuen funtzionamendua oztopatzen duten akatsak ekiditeko eta, bereziki, segurtasunean, zuzenean nahiz zeharka, eragin dezaketen elementuak zainduko.

## 2. atala. Ibilgailuaren barruko aldea.

## 39. artikulua

Ibilgailuek ageriko lekuan eraman beharko dituzte araudi honetan xedatutakoaz aparte, honakoak adierazten dituzten oharrak:

- a) 1. Ibilgailuaren hurrenkera zenbakia.
2. Erabiltzaileen zein langileen eskubide eta betebeharren zerrenda.

b) Hurrenkera zenbakia eta zerbitzua ematen ari den linearen izena, kanpotik ikusteko moduan.

## 40. artikulua

Aurreko aldeko atetik sartuko dira bidaiariak, eta bono-bus txar-teletik bidaiari dagokiona kitatu edo gidari-kobratzaileari txartela ordainduko diote, erabilera legaleko dirutan edo baimendutako kreditu txartelaren bidez, ibilgailuan horrela ordaintzeko modurik bada.

Hurrek, bost urte dituztenetik, txartela erosi edo bono-busa baliatu beharko dute, helduek bezala.

Erdiko edo atzeko atetik atera behar da autobusetik, inoiz ez aurrekotik.

## 41. artikulua

Erabiltzaileek ezin izango dute inolaz ere eserita bidaiatzeko exijitu, horretarako eskubidea eserleku hutsa egoteak baino ez baitie emango.

Ez dago eserlekuak betetzeko lehentasunik, ez bada mugitzeko arazoak dituzten pertsonak dutena, hain zuzen, berariaz haientzat gordetakoak betetzeko.

Ondorio horietarako honakoak joko dira mugitzeko arazoak dituztenak: ezinduak, adinekoak, haurdun dauden emakumeak edo besotan bularreko haurra daramatenak, eta oro har, egoera pertsonala dela eta, zutik joan ezin direnak istripua izateko arrisku argia dagoelako.

## 42. artikulua

Ezin izango dira eserlekuak erreserbatu eta aurreko artikuluan esandakoari jarraituko zaio beti.

## 43. artikulua

Erabiltzaileek erraz itxi eta irekitzeko moduko leihatilak eduki beharko dituzte ibilgailuek.

Bidaiariak leihatila irekitzearen edo ixtearen inguruan ados jartzen ez badira, klimatologia kontuan hartuko da.

Aire girotua badago, eta hori martxan dagoen bitartean, itxita eramango ditu leihatilak.

IV. kapitulua  
Instalazio finkoak

## 44. artikulua

Geltokietako babeslekuen apainketa egokia zaindu beharko du enpresak, bai eta erabiltzaileek zuzen erabil dezaten bermatzen duten baldintza egokiak ere.

## 45. artikulua

Geltokia dagoela adierazten duten seinaleak argiak izan behar dira, ikusteko moduko tokian jarrita eta araudi honetan xedatutakoa jasotzen dutenak.

## 46. artikulua

Edonola ere, bide publikoan jarritako instalazio finkoek udal araudi eta ordenantzek diotena bete beharko dute.

**Hirugarren titulua  
Zerbitzuko langileak**

I. kapitulua  
Arau orokorrak

## 47. artikulua

Zuzenean edo zeharka, erabiltzaileekiko harremana duten enpresako langileek uniformea eraman beharko dute, zuzendaritzak xedatutako arauekin bat.

## Artículo 38

En general, la dirección viene obligada a adoptar cuantas medidas redunden en bien del servicio, procurando que los vehículos carezcan de desperfectos que atenten al mismo y, muy particularmente, cuidará de aquellos órganos y elementos que directa o indirectamente puedan incidir en la seguridad.

## Sección 2ª. Interior del vehículo.

## Artículo 39

Los vehículos habrán de llevar en lugar visible, además de lo preceptuado en el presente Reglamento, avisos que indiquen:

- a) 1. Número de orden del vehículo.
2. Resumen de derechos y obligaciones, tanto del usuario como del personal de la empresa.
- b) Visible desde el exterior, número de orden y línea en la que presta servicio.

## Artículo 40

Las personas viajeras accederán al autobús por su puerta delantera y cancelarán una tarjeta de bono-bus o pagarán el importe de su billete al conductor-perceptor, en monedas de curso legal, o con las tarjetas de crédito que estén autorizadas, en caso de que el vehículo esté dotado de este medio de pago.

Los niños y niñas, desde los 5 años de edad, deberán viajar con billete o bono-bus en regla al igual que los adultos.

El descenso del autobús se efectuará, siempre, por las puertas central o trasera, y nunca por la delantera.

## Artículo 41

Los usuarios y usuarias no podrán exigir en ningún caso viajar sentados, a lo que sólo tendrán derecho habiendo asientos vacíos.

Los asientos del vehículo serán ocupados libremente por las personas viajeras sin preferencia alguna, salvo los expresamente reservados para personas con movilidad reducida.

A estos efectos, tendrán la consideración de personas con movilidad reducida: los minusválidos, personas de tercera edad, mujeres embarazadas o que porten en sus brazos a lactantes y en general las personas que, por sus circunstancias personales, no puedan viajar de pie sin evidente riesgo de accidente.

## Artículo 42

No tendrá efecto ninguna reserva de asientos de las personas viajeras y se atenderán siempre a lo expuesto en el artículo anterior.

## Artículo 43

Los vehículos irán necesariamente provistos de ventanillas que puedan cerrarse o abrirse a comodidad del usuario.

Si surgiese disparidad de criterio entre las personas viajeras sobre la apertura o cierre de ventanillas, se estará a las circunstancias climatológicas.

Si disponen de aire acondicionado, llevarán las ventanillas cerradas, en tanto se utilice el mismo.

Capítulo IV  
Instalaciones fijas

## Artículo 44

Los refugios de paradas deberán ser conservados por la empresa en conveniente estado de decoro, y en perfectas condiciones que aseguren su correcta utilización por el público usuario.

## Artículo 45

Las señalizaciones de paradas deberán ser claras, instaladas en lugar visible y conteniendo las indicaciones marcadas en el presente Reglamento.

## Artículo 46

En todo caso, las instalaciones fijas en la vía pública observarán los preceptos y ordenanzas municipales.

**Título tercero  
Personal del servicio**

Capítulo I  
Normas generales

## Artículo 47

Todo el personal de la empresa relacionado directa o indirectamente con el público, deberá ir uniformado de acuerdo con las normas que al respecto dicte la dirección.

Ondorio horietarako erabiltzaileekiko harreman zuzena edo zeharkakoa dute, beti edo noizean behin, ibilgailuetan edo bide publikoan aritzen diren mugimendu ataleko edo lantegietako langileak.

#### 48. artikulua

Aurreko artikuluan aipatutako langileek momenturo jokatu beharko dute erabiltzaileek merezi duten begirunez. Erabat debekatua dago ibilgailuaren barruan erretzea.

#### 49. artikulua

Enpresako langileek ezin izango dute inolaz ere begirunerik gabe edo adeigabe jokatu erabiltzaileekiko, beti ere, heziera onez eta begirunez bete beharko dute haien zeregina.

#### 50. artikulua

Dagokion hurrenkera hierarkikoa gorde beharko dute langileek, edonola ere diziplina eta elkarrekiko begirunea zaindu, eta berariaz debekatzen zaie haien artean eztabaidatzea zerbitzua ematen ari diren bitartean.

#### 51. artikulua

Enpresako langileen artean irizpide adostasunik ez dagoenean, "in actu" hierarkikoki goragokoarenak izango du lehentasuna, horrek gorera eragin ditzakeen ekintzak eta ardurak gorabehera.

#### 52. artikulua

Eztabaida langile baten eta erabiltzaile baten artekoa bada, TUVISAko langileak erabakitakoa bete beharko du erabiltzaileak; nolana ere erabakia haren kalterako izan dela uste bada, 97. artikuluan adierazitako bideak baliatu ahalko ditu salaketa jartzeko, egokitzat jotzen bada.

#### 53. artikulua

Langileei ezin izango zaie kargu hartu edo errieta egin lanean ari diren bitartean, lanaldia amaitu arte itxaron beharko da. Egindako falta bereziki larria bada, ahal bezain azkar jarriko da beste pertsona bat haren lekuan, edozein dela horren kategoria.

#### 54. artikulua

Zeregina betetzen ari diren ikuskatzaile eta gidariak indarrean dauden arau eta xedapenak betearazi beharko dizkiete bidaiariei, eta arau-hausleak salatuko agintaritzaren edozein agenteren aurrean.

### II. kapitulua Trafiko Buruzagitza

#### 55. artikulua

Trafiko buruari dagokio enpresaren zuzendaritzak zehaztutako zerbitzuak antolatzea eta koordinatzea.

Haren zeregin nagusia —azalpen gisa zerrendatzen da— izango da ibilgailuen zerbitzua antolatzea, hots, sarrerak eta irteerak, betiere jasotako jarraibide orokorrekin bat eta bere ardurapean; langileak zein materiala banatzeko erabakiak hartuko ditu; ikuskatzaile eta gidari-kobratzaileen lana gainbegiratu eta kontrolatuko du; bai eta enpresaren zuzendaritzak agindutakoa bete ere.

#### 56. artikulua

Trafiko buruaren zereginak izango dira, besteak beste, parkeko, kotxetegiako, trafiko materiala garbitzeko langileak, ibilgailuak garbitzen dituztenak koordinatzea; erregai-banaketa zaintzea; irrati bidezko transmisio bideen egoera koordinatu eta zaintzea; zuzendaritzak esleitu dizkion linea zein zerbitzuei zuzendutako ibilgailuetan egin diren kobrantzak bildu eta kitatzea. Gidari-kobratzaileek egindako bilketa zein emateen laburpena egin beharko dute.

### Ikuskatzaileak

#### 57. artikulua

Ikuskatzailea, haren zereginen eremuan, agintari gorena da, eta bidaiariei, berrikusleek zein gidari-kobratzaileek horren erabakiak, zerbitzuarekin loturik badaude, bete beharko dituzte, horien kontra egoki diren erreklamazioak gorabehera. Ikuskaritza ataleko langileek, berariaz lanpostuarenak diren zereginaz aparte, enpresaren zuzendaritzak agintzen dizkionak ere izango ditu.

Se entiende a estos efectos que tienen relación directa o indirecta con el público, el personal de movimiento y talleres que realice su cometido permanente u ocasionalmente en los vehículos o en la vía pública.

#### Artículo 48

El personal a que se refiere el artículo anterior deberá actuar en todo momento de acuerdo con el respeto que el público merece. Le está totalmente prohibido fumar en el interior del vehículo.

#### Artículo 49

Bajo ningún pretexto podrá el personal de la empresa tratar desconsiderada o descortésmente al público, debiendo cumplir con su deber con educación y respeto.

#### Artículo 50

Los empleados y empleadas entre sí deberán guardar el orden jerárquico correspondiente y en todo caso observar la disciplina y mutuo respeto, prohibiéndose expresamente toda discusión entre ellos en acto de servicio.

#### Artículo 51

Cuando haya discrepancia de criterio entre trabajadores de la empresa, prevalecerá siempre "in actu" la del superior, sin perjuicio de las actuaciones y responsabilidades a que posteriormente diese lugar el hecho.

#### Artículo 52

Si la discusión se produjese entre un empleado y un usuario, éste viene obligado a acatar la decisión de aquél, y en caso de sentirse perjudicado denunciar el hecho, si lo considerase procedente, utilizando los cauces expuestos en el art. 97.

#### Artículo 53

Ningún empleado podrá ser amonestado o reprendido en acto de servicio, sino al término de su jornada de trabajo. Si la falta cometida revistiese extrema gravedad, será relevado tan pronto como sea posible, con independencia de la categoría que ostente.

#### Artículo 54

El personal inspector y conductor en acto de servicio tendrán la obligación de hacer cumplir a los viajeros y viajeras las normas y disposiciones vigentes, denunciando a los infractores a cualquier agente de la autoridad.

### Capítulo II Jefatura de tráfico

#### Artículo 55

Corresponde a la Jefatura de Tráfico las funciones de organización y coordinación de los servicios determinadas en su alcance y extensión por la dirección de la empresa.

Su contenido fundamental, que se relaciona con carácter meramente enunciativo, consistirá en la ordenación del servicio de vehículos, entradas y salidas, a tenor de las instrucciones generales recibidas y bajo su propia responsabilidad, con iniciativa propia en la distribución del personal y del material; supervisión y control de inspectores, conductores-perceptores, y cuanto le sea encomendado por la dirección de la empresa.

#### Artículo 56

El Jefe de Tráfico se ocupará de la coordinación del personal adscrito al parque, cocheras, personal de limpieza de material de tráfico, del personal de lavado de vehículos, cuidado de la distribución del combustible y coordinar y vigilar el estado de los medios de radiotransmisión; recaudación y liquidación de las cobranzas efectuadas en los vehículos con destino a las líneas y servicios que le sean asignados por la dirección, librando un resumen de recaudaciones y entregas efectuadas por los conductores-perceptores.

### Personal de inspección

#### Artículo 57

El inspector/a, en el ámbito de sus funciones, constituirá la máxima autoridad; sus decisiones serán acatadas por los viajeros y el personal revisor y conductor-perceptor siempre que estén relacionadas con el servicio, sin perjuicio de las reclamaciones que contra las mismas procedan. El personal de inspección, además de las específicas del cargo, tendrá por misión cuanto le sea encomendado por la dirección de la empresa.

## 58. artikulua

Egoerak eskatzen dituen neurriak hartu beharko dituzte ikuskatzaileek, bai eta ibilbide alternatiboak ezarri ere, ordena publikoa aldatzen duten ezusteko arrazoiak edo aurreikusi ezin den beste edozein motakoak direla eta, ohiko ibilbideak aldatzen direnean.

Era berean, ikuskatzaileen zeregin berezia izango da indartzeko zerbitzuak lineek momentu bakoitzean dituzten beharrei egokitzea eta banatzea, zerbitzuek ahalbidetzen duten eraginkortasun handienarekin.

## 59. artikulua

Jarraibide orria idatziko du enpresa zuzendaritzak eta horri jarraitu beharko diote ikuskatzaileek haien zeregina betetzean.

## 60. artikulua

Bidaiariak dagokien bidaiatzeko titulua dutela kontrolatzea da berrikusleen zeregin nagusia, horretarako erakusteko eskatu ahaliko diete. Gainera zerbitzuaren kudeaketan lagundu beharko dute ikuskatzaileek eskatzen dieten moduan eta enpresaren zuzendaritzak eskatzen dienean.

Ikusten duten edozein irregulartasun dagokion gertakari-orrian jaso beharko dute.

Bidaiariei dagokienez, egoki diren neurriak berehala hartuko ditu.

## 61. artikulua

Berrikuspena erabiltzaileei ahalik eta eragozpenik txikiena eraginez burutuko da, baina ahalik eta eraginkortasun bermerik handienarekin.

## 62. artikulua

Ikuskatzaile eta berrikusleen eskumena da mugimendu ataleko enpresako langileei eta erabiltzaileei, oro har, arauak betearaztea, konkretuki araudi honetan xedatutakoak.

## 63. artikulua

Langile horiek ahalik eta zorrotzen bete beharko dituzte beraiek behartzen dituzten xedapenak.

### III. kapitulua Gidari kobratzaileak

## 64. artikulua

Zeregina betetzen ari direnean, indarrean dauden xedapenak bete beharko dituzte, bereziki, zirkulazio kodea eta honako araudia.

## 65. artikulua

Ez dute inolaz ere eztabaidetan parte hartuko eta debekatua dute erabiltzaileekin hitz egitea, ez bada zerbitzuarekin zerikusia duten galderei erantzuteko edo haren inguruko argibideak emateko.

## 66. artikulua

Araudi honetan xedatutakoarekin bat jokatu dute, zuzendaritzaren jarraibideei kasu eginez eta haien goragokoek emandako aginteak betetz, gerora eman ahaliko dute gertatutakoaren berri, egoki jotzen badute.

Bidaiariak barruan daudela ibilgailutik atera behar izanez gero, motorra gelditu, bildutakoa gorde edo aldean eraman eta atzeko atea irekita utzi beharko du gidariak, segurtasun neurri gisa.

## 67. artikulua

Gidari-kobratzaileek uniformea eraman beharko dute eta eskura duten zerbitzuaren inguruko informazioa eman bidaiariei, bai eta erabiltzaileekiko harremanean begirunez jokatu ere.

Era berean, zerbitzua ematen duen ibilgailua baldintzarik onenetan zaindu beharko du gidariak, eta bertan antzematen dituen arazoak berri eman beharko dio lantegiko buruari.

## Artículo 58

El personal de inspección viene obligado a adoptar cuantas medidas exijan las circunstancias y a fijar itinerarios alternativos, en caso de modificación de los recorridos normales por causas imprevisibles de alteración de orden público, o de cualquier otra índole no previsible.

Es así mismo misión primordial del servicio de inspección, distribuir y adecuar los servicios de refuerzos según las necesidades de las líneas en cada momento y con la mayor eficacia que estos servicios le permitan.

## Artículo 59

La dirección de la empresa redactará hoja de instrucciones a las que deberá ajustarse la inspección en el desempeño de su cometido.

## Artículo 60

Será misión primordial de los revisores y revisoras controlar que los usuarios estén en posesión del título de viaje correspondiente, a los que podrá exigir la exhibición del mismo. Además tendrán por misión cooperar en la gestión del servicio en la forma que les sea requerida por la inspección y cuanto les sea encomendado por la dirección de la empresa.

Cualquier irregularidad que observen será anotada y reseñada en el parte correspondiente.

En cuanto a la persona viajera, adoptará inmediatamente las medidas que procedan.

## Artículo 61

La revisión se efectuará de forma que se causen las menores molestias posibles al público, pero con las mayores garantías de eficacia.

## Artículo 62

Será facultad del personal inspector y revisor hacer cumplir a los empleados de la empresa en su sección de movimiento, y a los usuarios en general, cuantas disposiciones rijan, y concretamente cuanto se preceptúa en este Reglamento.

## Artículo 63

Este personal habrá de cumplir con máximo rigor cuantas disposiciones obliguen a los empleados.

### Capítulo III Personal conductor-perceptor

## Artículo 64

En el cumplimiento de su función actuarán conforme a las disposiciones vigentes, en especial el Código de Circulación y este Reglamento.

## Artículo 65

Se abstendrán en absoluto de intervenir en discusión o cuestión alguna y queda prohibido a los mismos hablar con el público, excepto cuando se trate de contestar a preguntas relacionadas con el servicio que se presta, o de indicar a los viajeros y viajeras alguna cuestión referente al mismo.

## Artículo 66

Actuarán conforme a lo preceptuado en este Reglamento, siguiendo las instrucciones de la dirección y las órdenes recibidas de sus mandos de quienes podrán, en su caso, dar ulterior parte si así lo estimaren.

En caso de tener que salir del vehículo, estando éste ocupado con personas viajeras, el conductor deberá parar el motor, guardar o llevar consigo la recaudación y dejar la puerta trasera abierta como medida de seguridad.

## Artículo 67

